

San Quirce, Silos eta Covarrubias irteera (2018ko azaroaren 8a)

Goizean goiz, Bilbo erdian geratu ginen, kotxeetan banatuta bidaiatzeko.

Burgosen, batzuek kafea eta gosari indargarria hartu genuen, San Quirce elizara bisitaldia egitera eramango gintuen personaren zain, geunden bitartean. Eliza finka pribatu batean dagoenez eta sarrera mugatua izanik, dagokion baimena lortu behar izan genuen. 1.200 hektareako finka zeharkatu genuen, eta hantxe aske bizi diren animaliak ikusi eta gero, San Quirce elizara heldu ginen. Eliza hau, Espainiako Erromanikoaren eredu bitxia da.



San Quirce eliza

Hemen izan zen non taldearen argazkia hartu genuen, egun hau bikaina eta "hotz" hau gogoratzeko:



Bere berezitasun arkitektonikoak eta elizaren barrualde interesgarria erakusten digun ate ederra ikusi ahal izan genituen:



Sarbide atea



Elizaren barrualdea

Ondoren, Silos herri politera abiatu ginen, monasterio ospetsua dagoen herrira. Han, hotza astintzeko, taberna batean bertoko odolosteak dastatu genituen; eta gero, monasterioko koru ospetsuaren kantu gregorianoa entzun genuen, bakoitzak bere moduan gozatuz.

Jatordua ailegatu zen, eta Covarrubias herrira joan ginen, han alde z aurretik bazkaltzeko lekua erreserbatuta geneukan eta. Bazkaldu baino lehen, etxeen apainketagatik saritua izan den herri horretatik oso ibilaldi atsegina eman genuen.



Covarrubias-eko kale bat

Otorduan etxeko jaki gozoak jan genituen eta bazkalondo entretenigarria pasatu genuen arratsalde arte. Amaitzeko, balio artistiko handia duen Covarrubias-eko Kolegiata bisitatzea erabaki genuen. Bisita gidatua izan zen. Eraikuntza bera eta baita barruan dagoen museoko hainbeste artelan ere ikustea merezi du .



Colegiata de Covarrubias

Udazkenean berehala iluntzen duenez, eta eguraldia aldatzen hasi zenez, etxera itzultzea erabaki genuen. Oso pozik geunden egun eta lagunarte ederra disfrutatzeagatik, eta gure elkartearen hurrengo irteeran pentsatzen hasi ginen.